

IRAGARPENA, Zamudioko b) motako Plangintza Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onarpena emateari buruzkoa.

8186

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, Tipo b) de Zamudio.

8186

Xedapen Orokorrak

KULTURA SAILA

2898

211/1993 DEKRETUA, 1993ko uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespren ofiziala arautzen duena.

Euskal Autonomia Elkarterako Estatutuaren 10.39 atalak, erabateko aginpidea ematen dio Euskal Autonomia Elkarteari Komunitate Garapenean, Emakumezkoen arloan, Haur eta Gazteentzako Politikan baita Hirugarren Adinekoan ere. Lurralde Historikoek arlo horiek burutzeko aginpidea dute, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. atalaren c) idatzatiko 2. puntuan ezarritakoari jarraituz. Lege beraren 7. atalaren a) idatzatiko 13 puntuan, Lurralde Historikorako interesgarri izan daitezkeen kultura erakundeak sortu eta mantentzeko aginpidea adierazten da.

1981ko martxoaren 23ko Dekretuaren bitartez, irailaren 26ko 3089/1980 Errege Dekretuan eta bere Eraskinean adierazita dagoen eran, zenbait zerbitzu, Gazteria eta Sustapen Sozio-Kulturala, besteak beste, Estatutik Euskal Autonomia Elkartera ekartzeko Transferentzi Batzorde Mistoaren Erabakia onartu eta hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea agindu zen. Horren ondoren, Gazteria alorrari zegozkion ahalmenak Kultura eta Turismo Sailaren mendea geratu ziren, Gobernuaren iharduera alorrak eta eginkizunak zehazteko martxoaren 11ko 27/1987 Dekretuari esker.

Kultura Sailak, informazio zabala, objetiboa eta eguneratua izateak Gazteriarentzat duen garrantzia ikusita, Sail horretako Gazteriaren eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaren mendea dagoen Euskadiko Gazteentzako Dokumentazio eta Informaziorako Koordinazio Zentrua eratu zuen, otsailaren 2ko 14/1988 Dekretuaren bidez.

Beste alde batetik, orain arte informazio alorrean izandako inizatibak era askotakoak eta erabat ezberdinak izanik, eta gazteei eman beharreko aholkularitzaz eta informazioaz Europako Batzordeak adierazitakoak kontuan hartuta, publikoak diren informazio-sareak eta onurak jasotzeko onespren ofizialak titulu gisa arautzea

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2898

DECRETO 211/1993, de 20 de julio, por el que se regula el reconocimiento oficial de los Servicios de Información Juvenil.

El artículo 10.39 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco atribuye competencia exclusiva a la Comunidad Autónoma en materia de Desarrollo Comunitario, Condición Femenina, Política Infantil y Juvenil y de la Tercera Edad. Los Territorios Históricos tienen atribuida competencia de ejecución en estas materias, en virtud de lo dispuesto en el artículo 7, punto 2 del apartado c) de la Ley 27/1983 de 25 de noviembre. Del punto 13, del apartado a) del artículo 7 de la misma Ley se infiere su competencia para crear y mantener organismos culturales de interés para el Territorio Histórico.

Mediante el Decreto de 23 de marzo de 1981, se aprobó, en los términos establecidos en el Real Decreto 3089/1980, de 26 de septiembre y Anexo, el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de servicios del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia, entre otras, de Juventud y Promoción Socio-Cultural, y se ordenó su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. Posteriormente, la esfera de atribuciones relativa al ámbito de la Juventud quedó afecta al Departamento de Cultura y Turismo en virtud del Decreto 27/1987, de 11 de marzo, sobre determinación de funciones y áreas de actuación del Gobierno.

El Departamento de Cultura consciente de la importancia que para el mundo juvenil tiene acceder a una información amplia, objetiva y actualizada, creó, por Decreto 14/1988, de 2 de febrero, el Centro Coordinador de Información y Documentación Juvenil de Euskadi, adscrito a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del citado Departamento.

Siendo, por otra parte, diversas y heterogéneas las iniciativas adoptadas hasta ahora en el campo de la información, y teniendo en cuenta la recomendación del Consejo de Europa relativa a la información y asesoramiento a dar a los jóvenes, se considera conveniente regular el reconocimiento oficial como título para el

komenigarritzat jotzen da. Onespen ofiziala lortzeko eskabidea egitea Gazteentzako Informazio Zerbitzueta-ko arduradunen esku egongo da; onespen horren bitartez, Dekretu honetan zehaztutako abantaila eta gainerako onurak izateko modua lortuko da, baita publikoki onartutako Zerbitzuak identifikatzeko ezaugarri ofiziala erabiltzeko ahalmena ere.

Ondorioz, Kultura Sailburuaren proposamenez, Euskadiko Gazteentzako Dokumentazio eta Informaziorako Koordinazio Zentruak adierazitakoa entzunda eta Jaur-laritzaren Batzordeak 1993ko uztailaren 20an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. *atala.*— Euskal Autonomia Elkartearen dauden Gazteentzako Informazio Zerbitzuek, ofizialki horrela onartuak izan daitezen eta indarrean dagoen arautegia-ren ondorioetarako, derrigorrez bete behar dituzten gutxieneko baldintzak arautzea da Dekretu honen xedea.

2. *atala.*— Honako Dekretu honetan, eta berau zehazteko Erabakietan, publiko zein pribatu izan dai-tezkeen Erakunde juridikoek bultzatuak izanik, zuzen-zuzenean gazteei eman eta zuzendutako informazio lana burutzea helburu nagusizat duten zerbitzu guztiak hartuko dira Gazteentzako Informazio Zerbitzutzat.

Gazteentzako Informazio Zerbitzuek eskainitako informazioak, gazteei zuzenean eragiten dieten gai guz-tiak edo gazteentzat interesgarri izan daitezkeenak hartzen ditu, nahi izanez gero gaietakoren batean espe-zializatzeko aukera ere badagoelarik baina gainerako beste gai guztiak inoiz ahaztu gabe.

3. *atala.*— Foru Aldundien barnean horretaz ardura-tzen diren Erakundeek, beren ahalmenak erabiliz, Gaz-teentzako Informaziorako Lurralde Zentruak era ditzake-te, Lurralde Historiko bakoitzean ofizialki onartuta dauden Gazteentzako Informazio Zerbitzu ezberdinak koordinatzeko xedez. Era berean, aipatutako Zentru horiek ikuskatze eta jarraipen lanak egin ahal izango dituzte arlo honetan indarrean dagoen Legediak ezarri-takoa beteaz.

4. *atala.*— Gazteentzako Informazio Bulego edo Gaz-teentzako Informazio Gune izendapena hartu ahal izan-go dute ofizialki Gazteentzako Informazio Zerbitzuek.

5. *atala.*— Gazteentzako Informazio Bulegoak, soil-soilik herri zein eskualde batekoak izanez gero, gazteari zuzenean ondorengo zerbitzuak eskaintzen dizkieten Gazteentzako Informazio Zerbitzuak dira, gutxienez honako betebeharrak izan behar dituelarik:

a) gazteentzako interesgarri izan litekeen informazio guztia bilatzea, tratatzea eta lantzea;

b) egoki iritzitako bideak erabiliz informazio hori zabaltzea, beti ere, gazteak bere inguruan informazio hori eskuratzeko modua izan behar duelarik;

acceso a beneficios y redes de información de carácter público. La solicitud de reconocimiento oficial será facultativa para los titulares de Servicios de Información Juvenil, si bien dicho reconocimiento les permitirá acceder a cuantas ventajas y demás extremos, se prevén en el presente Decreto, así como a la utilización del distintivo oficial que identifique a los Servicios públicamente reconocidos.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Cultura, oído el Centro Coordinador de Información y Documentación Juvenil de Euskadi, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 20 de julio de 1993,

DISPONGO:

Artículo 1.— El presente Decreto tiene por objeto la regulación de los requisitos mínimos que deben reunir los Servicios de Información Juvenil ubicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi, para su reconocimiento oficial como tales, con los efectos que la normativa vigente establece.

Artículo 2.— A los efectos del presente Decreto y de las disposiciones que lo desarrollen, tendrán la consideración de Servicios de Información Juvenil todos aquellos servicios que, promovidos por Entidades jurídicas, públicas o privadas, tengan por objeto principal el ejercicio de actividades de carácter informativo dirigidas y prestadas directamente a los jóvenes.

La información que elaboren los Servicios de Información Juvenil abarcará cuantos aspectos afecten directamente a los jóvenes o que puedan ser de su interés, pudiendo especializarse en alguno de ellos, sin prescindir de los demás.

Artículo 3.— Los correspondientes órganos de las Diputaciones Forales, dentro de su ámbito competencial, podrán crear Centros Territoriales de Información Juvenil al objeto de coordinar la función de los diferentes Servicios de Información Juvenil reconocidos oficialmente en sus respectivos Territorios Históricos. Asimismo dichos Centros podrán realizar labores de inspección y seguimiento en el cumplimiento de lo estipulado por la Legislación vigente en esta materia.

Artículo 4.— Los Servicios de Información Juvenil podrán ser reconocidos oficialmente como Oficinas de Información Juvenil o como Puntos de Información Juvenil.

Artículo 5.— Las Oficinas de Información Juvenil de carácter exclusivamente local o comarcal, son los Servicios de Información Juvenil que prestan tales servicios directamente al joven, debiendo desarrollar como mínimo, las siguientes funciones:

a) La búsqueda, tratamiento y elaboración de toda cuanta información pueda ser de interés para los jóvenes.

b) La difusión de dicha información, por los cauces que consideren oportunos, siempre que garanticen el más amplio acceso de los interesados en su respectivo ámbito territorial.

c) gazteari eskainitako zuzeneko zerbitzua;

d) erabaki honen eraginez zein beste edozein erabaki orokorri jarraituz bete beharrekoak diren gainerako zeregin guztiak.

6. *atala.*— Gazteentzako Informazio Bulegoek honako ezaugarri hauek errespetatu beharko dituzte bere zerbitzua eskaintzeko:

1. Egoitza bat izatea helburu horretarako bakarrik eta honako ezaugarri hauek betetzen dituela:

a) bi alde ezberdin bereiztea argi eta garbi, bata, informazioari berari zuzendua eta, bestea, informazioa landu eta zabaltzeko;

b) zuzenean sartzeko modua izatea eta, beraz, beste egoitza batzuetatik igaro beharrik ez izatea eta, era berean, oztopo arkitektonikorik zein bestelako eragozpenik ez egotea, horretarako hoberena beheko solairuan edo solairuarterkoan egotea izanik;

c) erraz aurkitzeko moduan egotea, kanpoko zein barruko aldean, helburu horretarako erabakitzen den ezaugarri identifikatzailea eta seinaliztapen egokia jarri behar delarik.

2. Jende aurreko zerbitzua, gutxienez, astean 20 ordutik beherakoa ez izatea eta, gutxienez, asteko lau egunez zabalik egotea.

3. Eskainiko diren zereginak bete ahal izateko adinak langile eta baliabide izatea.

4. Gazteentzako Informazio Bulegoetan lanean ihardun ahal izateko, langileak B.B.B., L.H. II zein pareko beste tituluren bat izan beharko du gutxienez eta, bere eginkizuna, berariaz araututako zereginaren osagarria izango da nahita nahiez.

7. *atala.*— Gazteentzako Informazio Bulegoekin beharrezko hierarkiarik izan gabe, gazteari zuzenean informazioa eskaintzen dioten Gazteentzako Informazio Zerbitzuak dira Gazteentzako Informazio Guneak. Informaziorako materiala, dena edo gehiena, organigramaz edo horrela nahi izanda Gunearekin zerikusirik duen Gazteentzako Informazio Bulego batek emana izango da edo, bestela, berari dagokion Gazteentzako Informaziorako Lurralde Zentruak emana.

8. *atala.*— Gazteentzako Informazio Guneek honako baldintza hauek bete beharko dituzte gutxienez:

1. Egoitza bat izatea edo berariazko leku bat, egoitza bereko beste zerbitzuetara zuzendutakoetatik bereizia, jendeari zerbitzua eskaini eta kontsultarako materialak eta gaiak gordetzeko bestekoa.

2. Jendeari eskainitako zerbitzuaren ordutegia, astean 6 ordutik beherakoa ez izatea.

3. Eskaini behar diren zereginei aurre egiteko besteko langile kopurua izatea. Eginkizun horietaz arduratuko diren langileek B.B.B., L.H. II zein pareko beste tituluren bat izan beharko dute gutxienez eta, horrez gainera, Gazteen Informazio alorrean arautuko den berariazko trebaketa aldia ere egina.

c) La atención directa al joven.

d) Cuantas otras de preceptivo cumplimiento se les puedan fijar por ésta u otras disposiciones de carácter general.

Artículo 6.— De cara a la prestación del servicio las Oficinas de Información Juvenil deberán cumplir, como mínimo, los siguientes requisitos:

1. Disponer de un local de uso exclusivo para tal fin y que reúna las siguientes características:

a) Que establezca de forma clara y visible dos zonas diferenciadas, destinando una a la información propiamente dicha, y otra a la elaboración y difusión de la misma.

b) Que facilite el acceso directo, suponiendo ello no tener que atravesar otro tipo de dependencias, sin impedimentos o barreras arquitectónicas que lo dificulten, a cuyo fin se ubicarán preferentemente en planta baja o entreplanta.

c) Que sea fácilmente localizable, para lo cual contará tanto en su exterior como en su interior con la señalización apropiada y el anagrama identificativo que se acuerde como distintivo para tal fin.

2. Mantener un horario de atención al público no inferior a veinte horas semanales y al menos durante cuatro días a la semana.

3. Disponer de personal y medios materiales suficientes para atender el volumen de cuantas funciones vayan a prestar.

4. El personal que esté al servicio de las Oficinas de Información Juvenil deberá poseer como mínimo la titulación de B.U.P., F.P.II ó equivalente y su función deberá estar necesariamente complementada con la específica que reglamentariamente se establezca.

Artículo 7.— Los Puntos de Información Juvenil son los Servicios de Información Juvenil, que sin mantener un necesario vínculo jerárquico con las Oficinas de Información Juvenil difunden la información directamente al joven. El material informativo, en su totalidad o en su mayor parte, les deberá ser proporcionado por una Oficina de Información Juvenil con la cual estén vinculados orgánica o convencionalmente, o en su defecto, por su correspondiente Centro Territorial de Información Juvenil.

Artículo 8.— Los Puntos de Información Juvenil deberán cumplir, como mínimo, los siguientes requisitos:

1. Contar con un local o con un espacio propio diferenciado de otros dedicados a diferentes servicios dentro del mismo local, suficiente para guardar el material y soportes de consulta y para atender al público.

2. Mantener un horario de atención al público, no inferior a las 6 horas semanales.

3. Contar con personal proporcionado al volumen de las funciones que vaya a prestar. El personal responsable deberá poseer como mínimo titulación de B.U.P., F.P.II, o equivalente, además de la correspondiente formación específica en la Información Juvenil que reglamentariamente se establezca.

9. *atala.*— Ofizialki onartutako Gazteentzako Informazio Zerbitzuek autokontsultarako lekuak erabili ahal izango dituzte, beren egoitzetatik kanpoko tokietan.

10. *atala.*— 1. Gazteentzako Informazio Zerbitzu bakoitzak bere izena izango du, ofizialki onartutako besteengandik bereizteko modukoa, beti ere, izen horrekin batera, sailkapenaren arabera dagokion izendapen orokorra ere agertu beharko delarik, Gazteentzako Informazio Bulegoa edo Gunea den zehaztuz.

Izen berezien artean nahasterik egon ez dadin, Euskadiko Gazteentzako Dokumentazio eta Informaziorako Koordinazio Zentruak Euskal Autonomia Elkarteke Lurraldeetako bakoitzean onartutako Gazteentzako Informazio Zerbitzu guztiak jasoko ditu erroldan. Zerbitzuotako arduradunek beren zereginen eta izendapenen berri emango diote lehenbailehen Koordinazio Zentruari.

2. Ofizialki onartutako Informazio Zerbitzu guztiek, ezaugarri gisa erabakiko den anagrama jarriko dute erraz ikusteko moduko leku batean, egoitza barruan eta kanpoko aldean.

11. *atala.*— 1. Dekretu honen xede diren Gazteentzako Informazio Zerbitzuek, ofizialki onartuak izan daitezten, lanean hasteko eta jende aurrean aritzeko nahita nahiez errespetatu behar dituzten betebeharez gainera, ondoren zehaztutako dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute Zerbitzu bakoitza kokatuta dagoen Lurralde Historikoaren erakundean, bai zuzenean, bai Administrazio Prozedurarako arautegiak zehaztutako bideetatik beste edozein erabiliaz:

a) Eredu normalizatuari jarraituz behar bezala betetako eskabidea.

b) Eskabidea egiten duen Erakundearen gaitasunari dagokionez:

1) Erakunde Juridiko Pribatua izanez gero:

– Eskabidea egin duen erakundearen estatutuen fotokopia.

– Dagokion erroldan erakunde gisa hartuta dagoela erakusten duen ziurtagiria.

– Erakundearen ordezkari den pertsonaren Agiri konpultsatua edo, hala balegokio, Gazteentzako Informazio Zerbitzua sortzen hasteko dagokion erakundeak emandako egiaztagiria.

2) Erakunde edo Baltzu Juridiko Publikoa izanez gero:

– Eskabidea egin duen erakundearen estatutuen fotokopia, hala balegokio.

– Gazteentzako Informazio Zerbitzua martxan jartzeko borondatea erakutsiaz, horretarako ahalmena duen erakundeak hartutako erabakiaren egiaztagiria, bertan, Zerbitzuari dagokion sailkapenari buruz berriazko aipamena eginaz.

c) Dekretu honetan ezarritakoari jarraituz, funtzionamendurako bete behar direnak eta gutxieneko egiturak errespetatzen direla erakutsiz egiaztatpenak.

Artículo 9.— Los Servicios de Información Juvenil reconocidos oficialmente, podrán disponer, en dependencias diferentes del propio local, de espacios de autoconsulta.

Artículo 10.— 1. Cada Servicio de Información Juvenil contará con una denominación propia, distinta de cualquier otra reconocida oficialmente, a la que acompañará siempre la genérica que le corresponda conforme a su clasificación como Oficina o Punto de Información Juvenil.

A los efectos de evitar duplicidad en las denominaciones el Centro Coordinador de Información y Documentación Juvenil de Euskadi registrará todos los Servicios de Información Juvenil que se reconozcan en cada uno de los Territorios de la Comunidad Autónoma Vasca, cuyos responsables deberán comunicar sin demora a dicho Centro Coordinador cuantos reconocimientos se verifiquen en sus respectivos ámbitos.

2. Todos los Servicios de Información reconocidos oficialmente deberán colocar en lugar visible, interior y exterior, el anagrama identificativo, que al efecto se determine para tal fin por el órgano competente.

Artículo 11.— 1. Sin perjuicio de cuantas otras obligaciones pudieran serles de preceptivo cumplimiento para su instalación, apertura y atención al público, los Servicios de Información Juvenil a los que se refiere el presente Decreto y a los efectos de proceder a su reconocimiento oficial, deberán presentar ante el órgano competente del Territorio Histórico donde radique el Servicio, bien directamente o por cualquiera de los cauces que determina la normativa de Procedimiento Administrativo aplicable, los siguientes documentos:

a) Solicitud según modelo normalizado debidamente cumplimentado.

b) En cuanto a la capacidad de la Entidad solicitante:

1) Si se trata de Entidad Jurídica Privada:

– Fotocopia de los estatutos de la entidad solicitante.

– Certificación que acredite su inscripción como entidad en el registro correspondiente.

– Documento compulsado de la persona que lo represente o si procede, certificación del órgano competente para proceder a la creación del Servicio de Información Juvenil.

2) Si se trata de Corporación o Entidad Jurídica Pública:

– Fotocopia de los estatutos de la entidad solicitante, si procede.

– Certificación de acuerdo del órgano competente por el que se adopta la declaración de la voluntad de proceder a la creación del Servicio de Información Juvenil y en la que deberá hacerse mención expresa de la categoría dentro de la cual desea ser reconocido.

c) Aquéllos que acrediten el cumplimiento de los requisitos mínimos de estructura y funcionamiento establecidos por el presente Decreto.

d) Zehatz-mehatz osatutako Txostena, gutxienez, honako argibide hauek emanez:

- Instalazioaren deskribapena: azpiegiturak, ekipamendua, etab.

- Funtzionamendurako urteko aurrekontua eta finantziaketa moduak.

- Gazteentzako Informazio Zerbitzua kokatuta dagoen esparru horretan sortzea egokia edo beharrezko dela erakusteko arrazoiak ematea.

- Gazteentzako Informazio Zerbitzuaren bidez eskaini nahi diren zeregin plangintzaren Memoria.

- Gazteentzako Informazio Zerbitzuan diharduten pertsonen buruzko argibideak, titulazioak eta egiten duten lana nolakoa den azaltzea.

2. Onarpenerako eskabidea jaso duen Erakundearen iritziz aurkeztutako dokumentazioan akatsik edo hutsunerik balego, eskabidea egin duenari hamar eguneko epea emango zaio jakinarazpena egiten denetik hasita, akatsak zuzendu edo hutsunea betetzeko behar diren agiriak aurkez ditzan, bestela, era horretara egin ezean, bere eskabidea bestelako tramiterik gabe artxibatu egingo dela jakinaraziz.

12. atala.– 1. Eskabidea eta gainerako dokumentazioa era egokian aurkezten denetik hasita hiru hilabete epean, Lurralde Historiko bakoitzak arlo horretarako duen erakundeak erabakia hartuko du, dena delako Gazteentzako Informazio Zerbitzua ofizialki onartuaz edo, bestela, onarpenari ezezkoa eman eta eskabidea egin duenari bidalitako jakinarazpenean erabaki horren arrazoiak zehaztuaz. Aipatutako epearen barruan berariaz erabakirik hartu ezean, eskabideari baiezkota eman zaiola ulertuko da Administrazio Prozedura Arrunterako arautegian ezarritako ondorioetarako.

2. Erabakian berariaz adieraziko da onarpenera emateak Gazteentzako Informazio Zerbitzuak Dekretu honetan zehaztutako baldintza guztiak errespetatzea eta zereginak betetzea dakartzala.

13. atala.– Dekretu honetan ezarritako gutxienezko baldintzei eta betebeharrak dagokienez onarpenera duen Zerbitzuan aldaketaren bat izanez gero, jakinarazi egin beharko zaio aurretiaz onarpen ofizialerako Erabakia hartu duen erakundeari.

14. atala.– Gazteentzako Informazio Zerbitzua onartzeko prozedura tramitatzerakoan zeregin banaketari dagokionez gaizki ulerturik eta koordinazio akatsik egon ez dadin, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Lurralde Historikoetan horretan eskumena duten erakundeek arreta handiz begiratu diote Administrazioen arteko lankidetzari, bakoitzak eskuratutako informazio guztiaren berri eman diezaioten elkarri.

15. atala.– 1. Onartutako Gazteentzako Informazio Zerbitzuren batek Dekretu honetan araututako baldintzak eta betebeharrak errespetatu ezean, onarpen ofiziala baliorik gabe utzi ahal izango da.

d) Informe detallado que contenga como mínimo los siguientes extremos:

- Descripción de la instalación: Infraestructura, equipamiento, etc.

- Presupuesto anual de funcionamiento y previsión de financiación.

- Justificación razonada de la conveniencia o necesidad de creación del Servicio de Información Juvenil en el ámbito territorial en el que vaya a desarrollar su actividad.

- Memoria del plan de las funciones a desarrollar desde el Servicio de Información Juvenil.

- Relación nominal, titulaciones y naturaleza del vínculo de prestación del servicio del personal del Servicio de Información Juvenil.

2. Si la documentación presentada adoleciera de vicios o resultara incompleta a juicio del órgano ante el que se hubiera instado el reconocimiento, se requerirá al solicitante para que, en el plazo de diez días a partir de la notificación, subsane el defecto o acompañe los documentos preceptivos, con apercibimiento de que, si así no lo hiciera, su solicitud será archivada sin más trámite.

Artículo 12.– 1. En el plazo de tres meses desde la correcta presentación de la solicitud y demás documentación referida, el órgano competente de cada Territorio Histórico, dictará resolución reconociendo oficialmente el Servicio de Información Juvenil de que se trate, o bien denegará el reconocimiento y razonará su decisión en la comunicación que dirija al solicitante. La no adopción de acuerdo expreso en plazo, deberá entenderse como estimatoria de la solicitud, a los efectos que prevé la normativa sobre Procedimiento Administrativo Común.

2. En la resolución se hará constar expresamente que el reconocimiento otorgado queda condicionado al cumplimiento por el Servicio de Información Juvenil de los requisitos y al desarrollo de las funciones establecidas para los mismos en el presente Decreto.

Artículo 13.– Cualquier modificación acaecida en el Servicio reconocido que afectase a los requisitos y las funciones que con el carácter de mínimos establece el presente Decreto deberá ser comunicada previamente al órgano que dictó la Resolución de reconocimiento oficial.

Artículo 14.– Con el fin de evitar disfunciones y defectos de coordinación que pudieran producirse durante la tramitación del procedimiento de reconocimiento de un Servicio de Información Juvenil, tanto el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco como los Organos competentes de los Territorios Históricos observarán con particular interés el principio de colaboración recíproca entre Administraciones, transmitiéndose mutuamente toda la información que se soliciten unas a otras.

Artículo 15.– 1. Caso de que un Servicio de Información Juvenil reconocido incumpliera las obligaciones y requisitos a los que se refiere el articulado de este Decreto, podrá revocársele el reconocimiento oficial.

2. Onarpena baliorik gabe utzi aurretik, oharpena egin beharko zaio Gazteentzako Informazio Zerbitzuari, hamar egunetik gorako epe batean, ikusitako akatsak zuzendu edo konpontzeko aukera izan dezan.

3. Oharpenaren berri izan arren, Zerbitzuak onarpena lortzeko bete beharreko baldintzak modu nabarian errespetatu gabe jarraituz gero, Zerbitzuari onarpena eman dion Erakundeak, aurretiaz dagokion Erakundeari entzunaldia eskaini ondoren, arrazoiak emanez hartutako Erabaki baten bitartez bertan behera utzi ahal izango du onarpen ofiziala.

16. atala.— Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak ego-ki iritzitako Lankidetzeta eta Elkarlanerako Hitzarmen guztiak sina ditzake Lurralde Historikoetan arlo horretan eskumena duten Erakundeekin, baita Gazteentzako Informazio Zerbitzuak bultzatzen dituzten Erakunde pribatu zein publikoekin ere, beti ere, kasu bakoitzari dagokion legezko prozedurari jarraituz eta erakundeen artean izan beharreko komunikazioa errespetatuz, interresgarria izan litekeen informazioa lortzeko bidea bermatu eta, ondoren, informazio hori Euskal Autonomia Elkarteke Gazteentzako Informazio Zerbitzu guztien artean banatzeko modua egon dadin.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Otsailaren 6ko 30/1990 Dekretuan zehaztutako bideetako edozein erabiliaz orain arte onartutako Gazteentzako Informazio Zerbitzu guztiak Dekretu honetan agindutakoari egokituko zaizkio, Dekretua indarrean jarri eta urte beteko epe barruan.

INDARGABETZE XEDAPENA

Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onarpen ofiziala arautzeko otsailaren 6an emandako 30/1990 Dekretua indarririk gabe geratzen da baita, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen alorrekoa izanik, Dekretu honetan ezarritakoaren aurka joan litekeen beste edozein erabaki ere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Kultura Sailburuari ematen zaio Dekretu honetan ezarritako xedapenak garatu eta burutzeko ahalmena.

Bigarrena.— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamu-nean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1993ko uztailak 20.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura Sailburua,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

2. Antes de proceder a la revocación del reconocimiento, deberá mediar un apercibimiento previo al Servicio de Información Juvenil para que subsane o corrija las deficiencias observadas en un plazo nunca inferior a diez días.

3. Cuando, a pesar del apercibimiento correspondiente, el Servicio continuase incumpliendo de manera notoria las obligaciones señaladas como condición necesaria para su reconocimiento, el Órgano que hubiere reconocido el Servicio podrá con audiencia previa de la entidad interesada, disponer mediante Resolución motivada la revocación del reconocimiento oficial.

Artículo 16.— El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco podrá suscribir, tanto con los Órganos Competentes de los Territorios Históricos como con las Entidades, públicas y privadas, que promuevan los Servicios de Información Juvenil, cuantos Convenios de Cooperación y Colaboración estime conveniente, conforme al procedimiento legal aplicable en cada supuesto y con respeto al deber de comunicación interinstitucional, con objeto de garantizar la obtención de información de interés para su posterior distribución a los Servicios de Información Juvenil de la Comunidad Autónoma.

DISPOSICION TRANSITORIA

Todos aquellos Servicios de Información Juvenil que hayan sido reconocidos hasta la fecha por cualquiera de los cauces previstos en el Decreto 30/1990, de 6 de febrero, deberán adaptarse a lo dispuesto en el presente Decreto en el plazo de un año desde la entrada en vigor del mismo.

DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 30/1990, de 6 de febrero, por el que se regula el reconocimiento oficial de los Servicios de Información Juvenil y cualquier otra disposición en materia de Servicios de Información Juvenil que se oponga a este Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta al Consejero de Cultura para desarrollar y ejecutar las disposiciones de este Decreto.

Segunda.— El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de julio de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Cultura,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.